Centro Vasco Transfusiones y Tejidos Humanos: 1
Emergencias: 1
Dirección General: 1

Horiez gainera, Administrazio Kontseiluaren 2001eko uztailaren 5eko erabakian, zerbitzu-erakunde izaerarekin baina nortasun juridiko independentearekin, Osatek SA kide bakarreko sozietatea eratu zen, entearen partaidetzarekin osorik (8. oharra).

Erantsitako urteko kontuek ez dute islatzen zer balio-gehikuntza edo murrizketa izan dituen entearen partaidetzak sozietate horretan, bateratze-irizpideak aplikatuz gero. Enteak ez ditu aurkezten bere eskumendeko Osatek SA kide bakarreko sozietatearekin bateratutako urteko kontuak; hala ere, entearen kontu bateratuen irudi fidela aurkeztuko balitz, ez litzateke nabarmen aldatuko urteko kontu hauek erakusten dutenaren aldean.

2. Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

a) Enteari aplikatu beharreko finantza-informazioaren arau-esparrua-

Administratzaileek enteari aplikatu beharreko arau-esparruaren arabera egin dituzte urteko kontu hauek. Arau-esparru hori honako hauetan ezartzen da:

1. Merkataritzako Kodea eta merkataritza-arloko gainerako legeria.
2. 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako Kontabilitate Plan Orokorra eta haren sektore-egokitzapenak.
3. Kontabilitateko Plan Orokorraren eta haren arau osagarrien garapenean, Kontabilitate eta Kontu Auditoretzako Institutuak onartzen dituen nahitaez bete beharreko arauetan.
4. Aplikatzekoak diren Espainiako gainerako kontabilitate-arauak.

b) Irudi fidela-

Entea osatzen duten zerbitzu-erakundearen egoera-orri finantzarioak batzeko prozesuaren ondorioz atera dira erantsitako kontuak. Orobat, kontabilitate-erregistroetan oinarrituta prestatu dira egoera-orriok, eta aplikatu beharreko finantza-informazioari buruzko arau-esparruarekin bat etorri aurkezten dira, baita, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideekin bat etorri ere. Horrenbestez, irudi fidela erakusten dute enteak dagokion ekitaldian izandako ondareari, finantza-egoerari, emaitzei eta diru-fluxuei dagokienez. Urteko kontu hauek Administrazio Kontseiluaren onarpenaren mende jarriko dira, aldaketarik gabe onartuko diren ustean. Bestalde, Administrazio Kontseiluak 2016ko apirilaren 18an egindako bilera onartu zituen 2015eko ekitaldiko urteko kontuak.

Adicionalmente, en el Acuerdo del Consejo de Administración de 5 de julio de 2001, se creó con el carácter de organización de servicios, aunque con personalidad jurídica independiente, la sociedad Osatek, S.A. (Sociedad Unipersonal), participada en su totalidad por el Ente (Nota 8).

Las cuentas anuales adjuntas no reflejan los aumentos o disminuciones del valor de la participación del Ente en dicha sociedad que resultarían de aplicar criterios de consolidación. El Ente no presenta cuentas anuales consolidadas con su sociedad filial Osatek, S.A. (Sociedad Unipersonal), no obstante, si se presentasen la imagen fiel de las cuentas consolidadas del Ente no variaría significativamente respecto de la que presentan estas cuentas anuales.

2. Bases de presentación de las cuentas anuales

a) Marco Normativo de información financiera aplicable al Ente-

Estas cuentas anuales se han formulado por los Administradores de acuerdo con el marco normativo de información financiera aplicable al Ente, que es el establecido en:

1. Código de Comercio y restante legislación mercantil.
2. Plan General de Contabilidad aprobado por el Real Decreto 1514/2007 y sus adaptaciones sectoriales.
3. Las normas de obligado cumplimiento aprobadas por el Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas en desarrollo del Plan General de Contabilidad y sus normas complementarias.
4. El resto de la normativa contable española que resulta de aplicación.

b) Imagen fiel-

Las cuentas adjuntas resultan del proceso de agregación de los estados financieros de las diferentes organizaciones de servicios que componen el Ente, los cuales han sido obtenidos de los registros contables y se presentan de acuerdo con el marco normativo de información financiera que le resulta de aplicación y en particular, los principios y criterios contables en él contenidos, de forma que muestran la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera, de los resultados del Ente y de los flujos de efectivo habidos durante el correspondiente ejercicio. Estas cuentas anuales se someterán a la aprobación del Consejo de Administración, estimándose que serán aprobadas sin modificación alguna. Por su parte, las cuentas anuales del ejercicio 2015 fueron aprobadas por el Consejo de Administración en su reunión celebrada el 18 de abril de 2016.



c) Nahitaezkoak ez izan arren aplikatu diren kontabilitate-printzipioak-

Ez da aplikatu nahitaezkoa ez den kontabilitate-printzipiorik. Horrez gain, administratzaileek, urteko kontu hauek egitean, kontuan hartu dituzte nahitaez aplikatu beharreko kontabilitateko printzipio eta arauak. Printzipio eta arau horiek eragin nabarmena dute urteko kontuetan. Ez dago aplikatu ez den nahitaezko kontabilitate-printzipiorik.

d) Ziurgabetasunaren balorazioari buruzko alderdi kritikoak-

Erantsitako urteko kontuak prestatzean, entearen administratzaileek egindako zenbatespenak erabili dira inoiz, erregistratutako aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu edo konpromisoetako batzuk baloratzeko. Oro har, honako hauei buruzkoak dira zenbatespen horiek:

- Pentsioengatik pasiboen eta langileekiko beste konpromiso batzuen kalkulua aktuariala egiteko erabilitako hipotesiak (4.j oharra).
- Aktibo materialen eta ukiezinen balio-bizitza (5. eta 6. oharra).
- Zordun komertzialen eta kobratzekoak diren beste kontu batzuen balio-zuzenketa kalkulua (4.d oharra).
- Izakinen narriadura (9. oharra).
- Epe luzerako hornidurak (12. oharra).

Entearen administratzaileen ustez, enteak ez zuen kontingente-pasiborik 2016ko abenduaren 31n, urteko kontu hauetan xehatutakoez gain.

Zenbatespen horiek egitean, 2016ko ekitaldiaren amaieran eskuragarri zegoen informaziorik onena hartu da oinarri gisa, baina baliteke etorkizuneko gertakariak zenbatespen horiek aldaraztea (gorantz edo beherantz) datozen ekitaldietan; bidezkoa bada, hori modu prospektiboan egingo da.

e) Informazioaren konparazioa-

Memoria honetan 2015eko ekitaldiari dagokionez jasotako informazioa 2016ko ekitaldiko informazioarekin alderatuta aurkezten da.

2016ko abenduaren 2an 602/2016 Errege Dekretua onartu zen (azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako Kontabilitate Plan Orokorra aldatzen duena). Esandako 602/2016 Errege Dekretua 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldiei aplikatzen zaie.

602/2016 Dekretuak txertatutako aldaketa nagusien artean, honako hauek eragiten diote enteari:

c) Principios Contables no obligatorios aplicados-

No se han aplicado principios contables no obligatorios. Adicionalmente, los Administradores han formulado estas cuentas anuales teniendo en consideración la totalidad de los principios y normas contables de aplicación obligatoria que tienen un efecto significativo en dichas cuentas anuales. No existe ningún principio contable que siendo obligatorio, haya dejado de aplicarse.

d) Aspectos críticos de la valoración de la incertidumbre-

En la elaboración de las cuentas anuales adjuntas se han utilizado estimaciones realizadas por los Administradores del Ente para valorar algunos de los activos, pasivos, ingresos, gastos y compromisos que figuran registrados en ellas. Básicamente estas estimaciones se refieren a:

- Las hipótesis empleadas en el cálculo actuarial de los pasivos por pensiones y otros compromisos con el personal (Nota 4.j).
- La vida útil de los activos materiales e intangibles (Notas 5 y 6).
- El cálculo de las correcciones valorativas de deudores comerciales y otras cuentas a cobrar (Nota 4.d).
- El deterioro de existencias (Nota 9).
- Las provisiones a largo plazo (Nota 12).

Los Administradores del Ente estiman que no existen pasivos contingentes para el Ente al 31 de diciembre de 2016, más allá de lo desglosado en estas cuentas anuales.

A pesar de que estas estimaciones se han realizado sobre la base de la mejor información disponible al cierre del ejercicio 2016, es posible que acontecimientos que puedan tener lugar en el futuro obliguen a modificarlas (al alza o a la baja) en los próximos ejercicios, lo que se realizaría, en su caso, de forma prospectiva.

e) Comparación de la información-

La información contenida en esta memoria referida al ejercicio 2015 se presenta a efectos comparativos con la información del ejercicio 2016.

En diciembre de 2016 se aprobó el Real Decreto 602/2016, de 2 de diciembre, por el que se modifica el Plan General de Contabilidad aprobado por el Real Decreto 1514/2007, de 16 de noviembre. Dicho Real Decreto 602/2016 es de aplicación a los ejercicios que se inicien a partir del 1 de enero de 2016.

Las principales modificaciones introducidas por el Real Decreto 602/2016 que afectan a Ente se refieren a:



- a) *Memorian jasotako informazioa banakatzeko modu berriak, eta horien artean, ondoren datorren b) puntuari aipatutako aldaken ondoriozko gain, honako hauek dira esanguratsuenak: a) administratzaileen erantzukizun zibileko aseguruaren prima ordainduen kopurua; b) % 33ko edo hortik gorako desgaitasun-maila duten enplegatuek; eta c) merkataritza-sozietate baten eta sozietateko bazkide, administratzaile edo haren kontura jarduten duen pertsona baten arteko edozein kontraturen amaiera, aldaketa edo aurreratutako azkentzea, sozietatearen saleroste arruntetik kanpoko eragiketa bada, edo baldintza normaletan egiten ez bada.*
- b) *Aktibo ukiezinak (batik bat, merkataritza-fondoa) erregistratzeko eta baloratzeko arauaren aldaketa. Uztailaren 20ko 22/2015 Legeak Merkataritza Kodean egindako aldaketen ildoa, ibilgetu ukiezinak balio-bizitza zehatzeko aktiboak direla ezarri da, eta, beraz, epe batez amortizazio sistematikoaren xede izan beharko dutela, baldin eta aurreikusten bada, zentzuz, aktiboari atxikitako mozkin ekonomikoek enpresarentzat errendimenduak sortuko dituztela epe horretan. Aktibo horien balio-bizitza ezin bada modu fidagarrian zenbatetsi, hamar urteko epean amortizatuko dira, ezertan galarazi gabe memoria honetan ibilgetu ukiezinari buruzko arau partikularretan ezarritako epeak.*

Memorian sartu beharreko informazio-eskaera berriei dagokienez, eta aipatutako Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak baimendutakoaren arabera, enteak, indarreko araudiari jarraikiz, ez du sartu konparaziozko informazioaren banakapena.

f) Partida multzokatuak-

Balantzeko, galdu-irabazien kontuko, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriko eta diru-fluxuaren egoera-orriko zenbait partida multzokatuta aurkeztu dira, errazago uler daitezten; hala ere, informazioaren garrantziaren arabera, bereizita eskaini dira dagozkien memoriako oharretan.

h) Kontabilitate-irizpideen aldaketak-

2016ko ekitaldian ez da aldaketa handirik gertatu kontabilitate-irizpideetan, 2015eko ekitaldian aplikatutako irizpideekin alderatuta.

- a) *Nuevos desgloses de información en la memoria entre los que se encuentran, como más significativos, además de los derivados de los cambios a los que se refiere el punto b) siguiente: a) la cantidad de las primas satisfechas del seguro de responsabilidad civil de los Administradores; b) los empleados con discapacidad mayor o igual al 33%; y c) la conclusión, modificación o extinción anticipada de cualquier contrato entre una sociedad mercantil y cualquiera de sus socios o Administradores o persona que actúe por cuenta de ellos, cuando se trate de una operación ajena al tráfico ordinario de la sociedad o que no se realice en condiciones normales.*
- b) *Modificación de la Norma de registro y valoración de los activos intangibles (en particular, el fondo de comercio). En línea con las modificaciones al Código de Comercio introducidas por la Ley 22/2015, de 20 de julio, se establece que los inmovilizados intangibles son activos de vida útil definida y por tanto, deberán ser objeto de amortización sistemática en el periodo durante el cual se prevé, razonablemente, que los beneficios económicos inherentes al activo produzcan rendimientos para la empresa. Cuando la vida útil de estos activos no pueda estimarse de manera fiable se amortizarán en un plazo máximo de diez años, sin perjuicio de los plazos establecidos en las normas particulares sobre el intangible.*

En relación con las nuevas exigencias de información a incluir en la memoria y según permite la Disposición adicional segunda del Real Decreto el Ente, de acuerdo con la normativa vigente, no ha incluido el desglose de información comparativa.

f) Agrupación de partidas-

Determinadas partidas del balance, de la cuenta de pérdidas y ganancias, del estado de cambios en el patrimonio neto y del estado de flujos de efectivo se presentan de forma agrupada para facilitar su comprensión, si bien, en la medida en que sea significativa, se ha incluido la información desagregada en las correspondientes notas de la memoria.

h) Cambios en criterios contables-

Durante el ejercicio 2016 no se han producido cambios de criterios contables significativos respecto a los criterios aplicados en el ejercicio 2015.



i) Akatsen zuzenketa-

Erantsitako urteko kontuak egiteko orduan ez da akats esanguratsurik hauteman, eta ez dira, beraz, 2015eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako zenbatekoak berriro adierazi behar izan.

3. Emaizta aplikatzea

Entearen administratzaileek proposamen hau onartu dute ekitaldiko emaitza aplikatzeko:

i) Corrección de errores-

En la elaboración de las cuentas anuales adjuntas no se ha detectado ningún error significativo que haya supuesto la reexpresión de los importes incluidos en las cuentas anuales del ejercicio 2015.

3. Aplicación del resultado

La propuesta de aplicación del resultado del ejercicio aprobada por los Administradores del Ente es la siguiente:

2016 eko Ekitaldia Ejercicio 2016	
A Soberakina A Remanente	210.380
Guztira / Total	210.380

4. Erregistratzeko eta baloratzeko arauak

2016ko ekitaldiko urteko kontuak prestatzeko, enteak erregistro- eta balorazio-arau nagusi hauek erabili ditu, Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritakoekin bat:

a) Ibilgetu ukiezina-

Arau orokor gisa, eskuratze-prezioaren edo produkzio-kostuaren arabera baloratzen da ibilgetu ukiezina. Geroago, metatutako amortizazioak murriztutako kostuan baloratzen da eta, hala badagokio, jasan duen narriaduragatiko galerek murriztutakoan. Aktibo horiek beren balio-bizitzaren arabera amortizatzen dira.

Aplikazio informatikoak

Erakundeak kontu honetan erregistratzen ditu enpresa-baliabideak kudeatzeko eskuratu eta garatu dituen ordenagailu-programengatik izandako kostuak. Aplikazio informatikoak mantentzegatiko kostuak gertatzen diren ekitaldiko galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira. Ibilgetu ukiezin hauek amortizatzeke, enteak linealki banatzen du horien eskuratze-kostu garbia, bost urtean zenbatetsitako balio-bizitza batean zehar.

4. Normas de registro y valoración

Las principales normas de registro y valoración utilizadas por el Ente en la elaboración de sus cuentas anuales para el ejercicio 2016, de acuerdo con las establecidas por el Plan General de Contabilidad, han sido las siguientes:

a) Inmovilizado intangible-

Como norma general, el inmovilizado intangible se valora inicialmente por su precio de adquisición. Posteriormente se valora a su coste minorado por la correspondiente amortización acumulada y, en su caso, por las pérdidas por deterioro que haya experimentado. Dichos activos se amortizan en función de su vida útil.

Aplicaciones informáticas

El Ente registra en esta cuenta los costes incurridos en la adquisición y desarrollo de programas informáticos para la gestión de recursos empresariales. Los costes de mantenimiento de las aplicaciones informáticas se registran en la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio en que se incurren. El Ente amortiza estos activos intangibles distribuyendo linealmente el coste bruto por el que fueron adquiridos en un período de vida útil estimada de 5 años.



b) Ibilgetu materiala-

1. oharrean deskribatu den moduan, eta Euskadiko Ondareari buruzko Legean (uztailaren 27ko 14/83 Legea) ezarritakoaren arabera, jabari publikoko ondasunak dira enteari atxikitako ondasun eta eskubide materialak eta hark bere jarduera gauzatzeko baliatzen dituenak; beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa da horien titularra, enteak bere baliabideen bitartez eskuratu baditu ere. Ondasun eta eskubide horiek enteari atxikita, dagozkion kudeaketa- eta administrazio-eskumenak ematen zaizkio.

Enteari 1998ko urtarrilaren 1aren aurretik atxikitako edo eskualdatutako ibilgetu materialak beren merkatu-balioan kontabilizatuta ageri dira. Erabilitako merkatu-balioak, funtsean, Eusko Jaurlaritzaren Ondare Zuzendaritzak edo zerbitzu-erakundeek bere emandako zenbatespenen bidez lortu ziren. Era berean, enteari bere jardueren hasieran atxikitako zuzenbide publikoko ondasunak, Euskal Autonomia Erkidegoaren jabetzakoak ez direnak, erantsitako balantzearen «Ibilgetu materiala - Lurrak eta eraikuntzak» epigrafean daude erregistratuta, merkatu-balioan, eta linealki amortizatzen dira 50 urteko epean, ez baita ezarri atxikipen-eperik. Enteari atxikitako gainerako ondasunak ere beren merkatu-balioaren arabera erregistratzen dira. Ildo horretan, eta 2012ko ekitalditik aurrera, enteak gizarte-funts nagusi gisa erregistratzen ditu zuzenean Eusko Jaurlaritzatik jasotako ondasunak, bazkide-ekarpen gisa hartzen baitira, eta linealki amortizatzen ditu, 75 urteko epean (11. oharra).

Ibilgetu materialaren gainerako elementuak baloratzeko, hasieran, eskuratzeko-prezioa edo produkzio-kostua hartzen da kontuan, eta ondoren, dagozkion metatutako amortizazioa eta narriaduragatiko galerak kentzen zaizkio, halakorik badago, 4.a oharrean aipatutako irizpidearen arabera.

Ibilgetu materiala osatzen duten elementuen kontserbazio- eta mantentze-gastuak egiten diren ekitaldiko galdu-irabazien kontuan kargatzen dira. Ondasunen kostu handiago modura erregistratzen dira, aldiz, ondasun horien ahalmena edo eraginkortasuna handitzen edo balio-bizitza luzatzen laguntzen duten hobekuntzetan inbertitutako zenbatekoak.

b) Inmovilizado material-

Tal y como se ha descrito en la Nota 1, y de acuerdo con lo establecido en la Ley 14/83, de 27 de julio, de Patrimonio de Euskadi, los bienes y derechos materiales adscritos al Ente y con los que desarrolla sus actividades tienen la naturaleza de bienes de dominio público y es por tanto la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi la que ostenta la titularidad de los mismos aunque hayan sido adquiridos por sus propios medios. La adscripción de estos bienes y derechos al Ente confiere al mismo las facultades de gestión y administración correspondientes.

Los inmovilizados materiales adscritos o traspasados al Ente con anterioridad al 1 de enero de 1998 figuran contabilizados por su valor venal. Los valores venales utilizados se obtuvieron, fundamentalmente, mediante estimaciones facilitadas por la Dirección de Patrimonio del Gobierno Vasco o por las propias organizaciones de servicios. Asimismo, los bienes de derecho público adscritos al Ente al inicio de sus actividades que no son propiedad de la Comunidad Autónoma del País Vasco están registrados en el epígrafe “Inmovilizado material - Terrenos y Construcciones” del balance adjunto por su valor venal y se amortizan linealmente en un periodo de 50 años ya que no se establece plazo de adscripción. Igualmente, el resto de bienes adscritos al Ente se registran, igualmente, de acuerdo con su valor venal. En este sentido, y desde el ejercicio 2012, el Ente registra los bienes recibidos directamente del Gobierno Vasco, como mayor fondo social, por su consideración de aportación de socio, amortizándolos linealmente en un periodo de 75 años (Nota 11).

El resto de elementos del inmovilizado material se valoran inicialmente por su precio de adquisición o coste de producción, y posteriormente se minoran por la correspondiente amortización acumulada y las pérdidas por deterioro, si las hubiera, conforme al criterio mencionado en la Nota 4.a.

Los gastos de conservación y mantenimiento de los diferentes elementos que componen el inmovilizado material se imputan a la cuenta de pérdidas y ganancias del ejercicio en que se incurren. Por el contrario, los importes invertidos en mejoras que contribuyen a aumentar la capacidad o eficiencia o a alargar la vida útil de dichos bienes se registran como mayor coste de los mismos.



Enteak metodo linealari jarraikiz amortizatzen du ibilgetu materiala, dena delako ondasunaren balio-bizitzaren urteen arabera kalkulaturako urteko amortizazio-ehunekoak aplikatuz, honako xehetasun honen arabera:

El Ente amortiza el inmovilizado material siguiendo el método lineal, aplicando porcentajes de amortización anual calculados en función de los años de vida útil estimada de los respectivos bienes, según el siguiente detalle:

Ibilgetua Inmovilizado	Amortizazio-ehunekoa Porcentaje amortización
Eraikuntzak Construcciones	% 1 - % 2
Instalazio teknikoak eta makineria Instalaciones técnicas y maquinaria	% 10 - % 13
Tresneria Utillaje	% 25
Bestelako instalazioak eta altzariak Otras instalaciones y mobiliario	% 10
Beste ibilgetu batzuk Otro inmovilizado	% 12 - % 20

Ondasun horietan egindako handitze eta hobekuntzak beren balio handienean erregistratzen dira, eta hondar-epean linealki amortizatzen dira, aktiboei esleitutako 50 urteko bizitzara arte.

Ekitaldi bakoitza ixtean, enteak, hala badagokio, berriz aztertzen ditu aktibo materialen hondar-balioak, balio-bizitzak eta amortizazio-metodoak, eta, bidezko bada, modu prospektiboan doitzen dira.

Ibilgetu ukiezinaren eta materialaren balio-narriadura

Ekitaldi bakoitza ixtean, ibilgetuko elementuren baten balio-galeraren zantzurik badago, aktibo horien balio berreskuragarria kontabilitate-balioarena baino zenbateko txikiago batera murrizten duen balio-galerarik egon den aztertzen du enteak. Zenbateko berreskuragarria hauxe da: arrazoizko balioaren (salmenta-kostuak kenduta) eta erabilera-balioaren arteko zenbateko handiena.

Diru-fluxuak sortzen ez dituen aktibo baten balio-narriadura hauxe da: aktiboaren zerbitzu-ahalmenaren galera, amortizazioak eraturako balio-galera sistematiko eta erregularraz bestelakoa dena. Halakoetan, bada, aktiboak hura kontrolatzen duen erakundearentzat duen erabilgarritasunaren murrizketaren ondoriozkoa da narriadura. Narriadura hori zehazteko, erabilera-balioa zehazten da, berriz jartzeko kostuari erreferentziaz.

Las ampliaciones y mejoras realizadas en dichos bienes se registran como mayor valor de los mismos y se amortizan linealmente en el periodo residual hasta los 50 años de vida asignados a los activos.

En cada cierre de ejercicio, el Ente revisa y ajusta, en su caso, los valores residuales, vidas útiles y método de amortización de los activos materiales, y si procede, se ajustan de forma prospectiva.

Deterioro de valor de activos intangibles y materiales

Al cierre de cada ejercicio, siempre que existan indicios de pérdida de valor de un elemento del inmovilizado, el Ente procede a estimar la posible existencia de pérdidas de valor que reduzcan el valor recuperable de dichos activos a un importe inferior al de su valor en libros. El importe recuperable se determina como el mayor importe entre el valor razonable menos los costes de venta y el valor en uso.

El deterioro de valor de un activo no generador de flujos de efectivo es la pérdida de potencial de servicio del activo, distinta a la depreciación sistemática y regular que constituye la amortización. El deterioro en estos casos, por tanto, responde a una disminución en la utilidad que proporciona el activo a la entidad que lo controla, determinándose a los efectos de determinar dicho deterioro el *valor* en uso por referencia al coste de reposición.



Ibilgetuko elementuen narriaduragatik egiten diren balio-zuzenketak eta, halaber, balio-zuzenketa eragin zuten arrazoiak desagertu direlako egiten diren itzulketak, galdu-irabazien kontuan aitortuko dira, gastu edo diru-sarrera moduan, hurrenez hurren.

Gerora balio-narriaduragatik galera itzultzen bada, aktiboaren kontabilitate-zenbatekoa handitzen da, zenbateko berreskuragarriaren zenbatespen berrikusiaren neurri berean. Hala ere, handitutako kontabilitate-zenbatekoak ez du gaudituko aurreko ekitaldietan narriaduragatik galerarik aitortu ezean zehaztuko litzatekeena. Balioaren narriaduragatik galera baten itzulketak diru-sarrera gisa kontabilizatzen da.

Entearen administratzaileek ulertzen dute handiagoa dela ibilgetuko aktiboaren balio berreskuragarria, horien kontabilitate-balio garbia baino.

c) Errentamenduak-

Errentamendu operatiboko hitzarmenetatik datozen gastuak galdu-irabazien kontuan kargatzen dira, sortzen diren ekitaldian.

Errentamendu operatibo bat kontratatzean egiten diren kobrantza edo ordainketa guztiak kobrantza edo ordainketa aurreratutzat hartuko dira, eta emaitzei egotziko zaizkie errentamendu-aldian zehar, errentan emandako aktiboaren mozkinak lagatzen edo jasotzen diren heinean.

2016ko abenduaren 31n enteak ez zuen errentamendu finantzariorik.

d) Finantza-aktiboak-

Erakundearen finantza-aktiboak honako kategoria hauetan sailkatzen dira:

a) Maileguak eta kobratzeko partidak

Ondasun-salmentan edo enpresaren trafiko-eragiketengatik zerbitzu-prestazioan sortutako finantza-aktiboak edota, merkataritza-jatorria eduki gabe, ondare-tresnak edo deribatuak ez direnak, baldin eta haien kobrantzak zenbateko zehatzekoak edo zehaztu daitekeen zenbatekokoak badira eta merkatu aktibo batean negoziatzen ez badira.

b) Emandako fidantzak eta gordailuak.

Nagusiki obretarako kontratuen ondorioz hartutako betebeharrak betetzen direla bermatzeko eratutako gordailuak.

Las correcciones valorativas por deterioro de los elementos del inmovilizado, así como su reversión, cuando las circunstancias que lo motivaron hubieran dejado de existir, se reconocerán como un gasto o un ingreso, respectivamente, en la cuenta de pérdidas y ganancias.

Cuando una pérdida por deterioro de valor revierte posteriormente, el importe en libros del activo se incrementa en la estimación revisada de su importe recuperable, pero de tal modo que el importe en libros incrementado no supere el importe en libros que se habría determinado de no haberse reconocido ninguna pérdida por deterioro en ejercicios anteriores. Dicha reversión de una pérdida por deterioro de valor se reconoce como ingreso.

Los Administradores del Ente entienden que el valor recuperable de los activos inmovilizados es superior al valor neto contable de los mismos.

c) Arrendamientos-

Los gastos derivados de los acuerdos de arrendamiento operativo se cargan a la cuenta de pérdidas y ganancias en el ejercicio en que se devengan.

Cualquier cobro o pago que pudiera realizarse al contratar un arrendamiento operativo, se tratará como un cobro o pago anticipado que se imputará a resultados a lo largo del periodo del arrendamiento, a medida que se cedan o reciban los beneficios del activo arrendado.

El Ente no cuenta con arrendamientos financieros al 31 de diciembre de 2016.

d) Activos financieros-

Los activos financieros que posee el Ente se clasifican en las siguientes categorías:

a) Préstamos y partidas a cobrar.

Activos financieros originados en la venta de bienes o en la prestación de servicios por operaciones de tráfico de la empresa, o los que no teniendo un origen comercial, no son instrumentos de patrimonio ni derivados y cuyos cobros son de cuantía fija o determinable y no se negocian en un mercado activo.

b) Fianzas y depósitos entregados.

Depósitos constituidos en garantía del cumplimiento de las obligaciones contraídas principalmente por contratos de obra.



- c) Taldeko enpresen, enpresa elkartuen eta talde anitzeko enpresen ondarean egindako inbertsioak.

Taldeko enpresatza hartzen dira kontrol-harreman baten bidez enteari lotuta daudenak, eta enpresa elkartzat, berriz, entearen eragin nabarmena jasotzen dutenak. Horrez gain, talde anitzeko kategoriaren barruan daude ere bazkide batekin edo gehiagorekin baterako kontrola jasotzen duten sozietateak (8. oharra).

Hasierako balorazioa -

Maileguak, kobratzeko partidak eta taldeko enpresen nahiz enpresa elkartuen ondarean egindako inbertsioak, hasiera batean, emandako ordainaren arazoizko balioan erregistratzen dira, zuzenean egotz dakizkikeen transakzio-kostuak gehituta.

Emandako fidantza eta gordailuak benetan emandako zenbatekoaren arabera erregistratzen dira hasiera batean.

Geroagoko balorazioa -

Maileguak, kobratzeko partidak eta emandako fidantzak eta gordailuak kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira.

Taldeko enpresetan, enpresa elkartuetan eta talde anitzeko enpresetan egindako inbertsioak beren kostuaren arabera baloratzen dira, eta hala badagokio, narriaduragatiko balio-zuzenketen zenbateko metatua kentzen zaie. Aipatutako zuzenketa horiek kontabilitateko balioaren eta zenbateko berreskuragarriaren arteko diferentzia modura kalkulatzeko, zenbateko berreskuragarria bi hauetan handiena dela ulertuta: haren arazoizko balioa ken salmenta-kostuak edo inbertsioaren ondoriozko etorkizuneko diru-fluxuen balio eguneratua. Zenbateko berreskuragarriaren ebidentzia garbiagorik ezean, kontuan hartzen da partaidetzazko entitatearen ondare garbia, balorazioa egiteko egunean entitatearen balantzean dauden gainbalio tazituen zuzenketa aplikatuta (Merkataritza Fondoa barne, halakorik balego).

- c) Inversiones en el patrimonio de empresas del Grupo, asociadas y multigrupo.

Se consideran empresas del Grupo aquellas vinculadas con el Ente, por una relación de control, y empresas asociadas aquellas sobre las que el Ente ejerce una influencia significativa. Adicionalmente, dentro de la categoría de multigrupo se incluye a aquellas sociedades sobre las que, en virtud de un acuerdo, se ejerce un control conjunto con uno o más socios (Nota 8).

Valoración inicial -

Los préstamos, partidas a cobrar, así como las inversiones en el patrimonio de empresas del grupo y asociadas se registran inicialmente al valor razonable de la contraprestación entregada más los costes de la transacción que sean directamente atribuibles.

Las fianzas y depósitos entregados se registran inicialmente por los importes efectivamente entregados.

Valoración posterior -

Los préstamos, partidas a cobrar y fianzas y depósitos entregados se valoran por su coste amortizado.

Las inversiones en empresas del Grupo, asociadas y multigrupo se valoran por su coste, minorado, en su caso, por el importe acumulado de las correcciones valorativas por deterioro. Dichas correcciones se calculan como la diferencia entre su valor en libros y el importe recuperable, entendido éste como el mayor importe entre su valor razonable menos los costes de venta y el valor actual de los flujos de efectivo futuros derivados de la inversión. Salvo mejor evidencia del importe recuperable, se toma en consideración el patrimonio neto de la entidad participada, corregido por las plusvalías tácitas existentes en la fecha de la valoración (incluyendo el Fondo de Comercio, si lo hubiera).



Bereziki, eta zordun komertzialei eta kobratzeko beste kontu batzuei buruzko balio-zuzenketei dagokienez, enteak dagozkion balio-zuzenketak (halakorik balego) aplikatzeko erabiltzen duen irizpidea honako hauetan oinarritzen da: aktiboen eta haien bitartez emandako zerbitzuen ezagutza eta esperientzia historikoa, eta inguruabarren arabera arrazoizkotzat jotako hainbat faktore. Enteak kategoria hauek ezartzen ditu kobratzeko saldoei buruzko bere narriadura-politikan: zordun komertzialak, mutualitateak eta partikularrak kobrantzen historikoaren arabera.

Erantsitako egoera-balantzean, 2016ko eta 2015eko ekitaldietarako, honako hau izan da zordun komertzialei buruzko balio-zuzenketen mugimendua (eurotan):

En particular, y respecto a las correcciones valorativas relativas a los deudores comerciales y otras cuentas a cobrar, el criterio utilizado por el Ente para calcular las correspondientes correcciones valorativas, si las hubiera, se basa en un conocimiento y una experiencia histórica de los activos y servicios prestados con los mismos y en otros factores diversos que son entendidos como razonables de acuerdo con las circunstancias. El Ente establece su política de deterioro de saldos a cobrar para las categorías de deudores comerciales, mutuas y particulares en función del histórico de cobros.

El movimiento de las correcciones valorativas relativas a los deudores comerciales del balance de situación para los ejercicios 2016 y 2015 adjunto ha sido el siguiente (en euros):

2016ko Ekitaldia Ejercicio 2016	Saldoa 31.12.15 Saldo al 31.12.15	Hornidura/Itzultzea Dotación/Reversión	Erabilera Aplicación	Saldoa 31.12.16 Saldo al 31.12.16
Kredituen hondatzea Deterioro de créditos	(10.449.833)	(2.416.252)	2.728.061	(10.138.024)

2015ko Ekitaldia Ejercicio 2015	Saldoa 31.12.14 Saldo al 31.12.14	Hornidura/Itzultzea Dotación/Reversión	Erabilera Aplicación	Saldoa 31.12.15 Saldo al 31.12.15
Kredituen hondatzea Deterioro de créditos	(12.537.735)	(1.072.010)	3.159.912	(10.449.833)

Erakundeak 2016an 2.416.252 euro izan ditu guztira "Otros gastos de explotación – Pérdidas, deterioro y variación de provisiones por operaciones comerciales" epigrafeari dagozkion kreditu komertzial kobragaitzen galeretan, galera-irabazien kontuan, 2016ko abenduaren 31n bukatu zen ekitaldiari dagokionez.

Enteak finantza-aktiboen baja ematen du iraungitzen direnean edo dagozkion finantza-aktiboko eskudiru fluxuenganako eskubideak laga direnean eta nabarmenki eskualdatu direnean jabetzak berezkoak dituen arriskuak eta onurak.

e) Finantza-pasiboak.

Finantza-pasiboak Enteak ordaintzeko dituen zordunketak eta partidak dira, enpresaren trafiko-eragiketengatik ondasun eta zerbitzuak erostean sortu direnak, edo bestela, jatorri komertziala izan gabe ere, finantza-tresna eratorri gisa ezin direnak hartu.

El Ente ha reconocido en el ejercicio 2016 un importe de 2.416.252 euros correspondiente a pérdidas de créditos comerciales incobrables con cargo al epígrafe "Otros gastos de explotación – Pérdidas, deterioro y variación de provisiones por operaciones comerciales" de la cuenta de pérdidas y ganancias correspondiente al ejercicio anual terminado el 31 de diciembre de 2016 adjunta.

El Ente da de baja los activos financieros cuando expiran o se han cedido los derechos sobre los flujos de efectivo del correspondiente activo financiero y se han transferido sustancialmente los riesgos y beneficios inherentes a su propiedad.

e) Pasivo Financiero.

Son pasivos financieros aquellos débitos y partidas a pagar que tiene el Ente y que se han originado en la compra de bienes y servicios por operaciones de tráfico de la empresa, o aquellos que sin tener un origen comercial, no pueden ser considerados como instrumentos financieros derivados.

Zordunketak eta ordaindu beharreko partidak baloratzeko, hasiera batean, doitu egiten da jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioa zuzenean egoztekoak diren transakzioaren kostuekin. Gerora, pasibo horiek amortizatutako kostuaren arabera baloratzen dira. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuz. Nolanahi ere, gehienez urtebeteko iraungitzea duten merkataritza-eragiketengatiko zordunketak, baldin eta epe laburrean ordaintzekoa den kontratuko interes-tasa ez badute, balio nominalarekin baloratzen dira, eskudiru fluxuak ez eguneratzeak ondorio nabarmenik ez duenean.

Enteak sortutako obligazioak amaitzen direnean ematen du finantza-pasiboen baja.

f) Izakinak.

Izakinak hauetatik txikiena denarekin baloratzen dira: eskuratze-prezioa, ekoizpen-kostua edo balio garbi bihurtaria. Deskontu komertzialen, lortutako beherapenen, antzeko beste partida batzuen eta zordunketen nominalari gehitutako interesen kenketa eskuratze-prezioa zehaztean egiten da.

Balio garbi bihurtaria hauxe da: salmenta-prezioaren estimazioa ken fabrikatzen amaitzeko kalkulaturako kostu guztiak ken merkaturatze-, saltze- eta banaketa-prozesuetako kostuak.

Bere inbentarioei balioa esleitzeko, Enteak batez besteko kostu haztatuaren metodoa erabiltzen du.

Enteak egin beharreko balioaren zuzenketak egiten ditu eta galdu-irabazien kontuan egindako gastutzat hartzen ditu izakinen balio garbi bihurtariaren balioa eskuratze-prezioa (edo ekoizpen-kostua) baino txikiagoa denean.

g) Korrontetzat eta ez korrontetzat sailkatzea.

Kredituak eta zorrak korrontetzat sailkatzen dira baldin eta iraungitzeko, besterentzeko edota aktiboa bihurtzeko edo zorra kitatzeko aurreikusitako epea ustiapen-ziklo normalean sartzen bada; orokorrean, hamabi hilabetean. Ez korrontetzat, aldiz, hortik gorako iraungitzeak.

h) Irabazien gaineko zerga.

Enteak, nola zuzenbide pribatuko erakunde publikoa den eta aldi berean Euskadiko osasun-arreta kudeatzeaz arduratzen den erakunde publikoa ere baden, sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboa da baina salbuetsita dago.

Los débitos y partidas a pagar se valoran inicialmente al valor razonable de la contraprestación recibida, ajustada por los costes de la transacción directamente atribuibles. Con posterioridad, dichos pasivos se valoran de acuerdo con su coste amortizado. Los intereses devengados se contabilizan en la cuenta de pérdidas y ganancias, aplicando el método del tipo de interés efectivo. No obstante, los débitos por operaciones comerciales con vencimiento no superior a un año y que no tengan un tipo de interés contractual cuyo importe se espera pagar en el corto plazo, se valoran por su valor nominal, cuando el efecto de no actualizar los flujos de efectivo no es significativo.

El Ente da de baja los pasivos financieros cuando se extinguen las obligaciones que los han generado.

f) Existencias.

Las existencias se valoran a su precio de adquisición, coste de producción o valor neto realizable, el menor. Los descuentos comerciales, las rebajas obtenidas, otras partidas similares y los intereses incorporados al nominal de los débitos se deducen en la determinación del precio de adquisición.

El valor neto realizable representa la estimación del precio de venta menos todos los costes estimados para terminar su fabricación y los costes que serán incurridos en los procesos de comercialización, venta y distribución.

En la asignación de valor a sus inventarios el Ente utiliza el método del coste medio ponderado.

El Ente efectúa las oportunas correcciones valorativas, reconociéndolas como un gasto en la cuenta de pérdidas y ganancias cuando el valor neto realizable de las existencias es inferior a su precio de adquisición (o a su coste de producción).

g) Clasificación corriente y no corriente.

Se clasifican como corrientes los créditos y deudas cuyo plazo previsto para el vencimiento, enajenación o realización del activo o cancelación de la deuda sea en el ciclo normal de explotación, en general, doce meses y no corrientes los vencimientos superiores.

h) Impuesto sobre beneficios.

El Ente, tanto por su condición de entidad pública de derecho privado, como de entidad pública encargada de la gestión de la asistencia sanitaria en Euskadi, es sujeto pasivo del Impuesto sobre Sociedades pero exento del mismo.

i) Diru-sarrerak eta gastuak.

Diru-sarrera eta gastuak sortze-irizpidearen arabera egozten dira, hau da, horiei dagozkien ondasun eta zerbitzuen benetako korrantea gertatzen denean, horien ondoriozko diru- edo finantza-korrantea gertatzen den unea gorabehera. Diru-sarrera horiek jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioan baloratzen dira, kenduta deskontuak eta zergak.

Programa Kontratuen, Mutuen eta antzeko beste erakunde batzuen estaldurapean sartzen diren zerbitzuen diru-sarrerak nahiz paziente partikularrei dagozkienak kontabilitatean aintzat hartzen dira zerbitzu horiek ematen badira. Xedeko pazienteei eman beharreko zerbitzu-maila aldi-aldi berrikusten diren hitzarmenetan jasotzen da, gizarteak zerbitzuaren gainean dituen espektatibekin bat egiteko helburuarekin.

j) Hornidurak eta kontingentziak.

Urteko kontuen formulazioan, Enteko administratzaileek bi hauen artean bereizten dute:

a) Hornidurak.

Iragandako gertakarietatik eratorritako gaur egungo obligazioak estaltzen dituzten saldo hartzekodunak dira, ezeztatzean baliabide-irteera sor dezaketenak, baina ezin zehaztu daitekeenean zenbatekoa, ezta ezeztatzeko unea ere zenbaitetan.

b) Pasibo kontingenteak.

Iragandako gertakarietatik eratorritako obligazio posibleak, horiek etorkizunean gauzatzea Entearen borondateatik kanpo dagoen edo dauden etorkizuneko gertakari bat edo gehiago gertatzearen edo ez gertatzearen menpe dagoenean.

Urteko kontuek hornidura guztiak jasotzen dituzte baldin eta obligazioa bete behar izateko probabilitatea bete behar ez izatearen baina handiagoa dela aurreikusten denean. Urrunekoak kontsideratu ezean, pasibo kontingenteak ez dira urteko kontuetan sartzen; aldiz, haiei buruzko jakinarazten da memoriaren oharretan.

Hornidurak obligazioa ezeztatu edo transferitzeko beharrezko zenbatekoaren kalkulu posible onenaren egungo balioarekin balioztatzen dira, gertakizunari eta bere ondorioei buruzko informazioa kontuan izanik, eta aipatutako horniduren eguneratzearen ondorioz sortutako doitzeak erregistratuko dira, finantza-gastu baten moduan sortzen diren heinean.

i) Ingresos y gastos.

Los ingresos y gastos se imputan en función del criterio de devengo, es decir, cuando se produce la corriente real de bienes y servicios que los mismos representan, con independencia del momento en que se produzca la corriente monetaria o financiera derivada de ellos. Dichos ingresos se valoran por el valor razonable de la contraprestación recibida, deducidos descuentos e impuestos.

Los ingresos correspondientes a los servicios cubiertos por los Contratos Programa, Mutuas y otros organismos similares, así como pacientes particulares se reconocen contablemente cuando se prestan dichos servicios. El nivel de servicio a prestar a los pacientes finales se plasma en convenios que se revisan periódicamente, a efectos de cubrir la expectativa social del servicio.

j) Provisiones y Contingencias.

Los Administradores del Ente en la formulación de las cuentas anuales diferencian entre:

a) Provisiones.

SalDOS acreedores que cubren obligaciones actuales derivadas de sucesos pasados, cuya cancelación es probable que origine una salida de recursos, pero que resultan indeterminados en cuanto a su importe y/o momento de cancelación.

b) Pasivos contingentes.

Obligaciones posibles surgidas como consecuencia de sucesos pasados, cuya materialización futura está condicionada a que ocurra, o no, uno o más eventos futuros independientes de la voluntad del Ente.

Las cuentas anuales recogen todas las provisiones con respecto a las cuales se estima que la probabilidad de que se tenga que atender la obligación es mayor que de lo contrario. Salvo que sean considerados como remotos, los pasivos contingentes no se reconocen en las cuentas anuales sino que se informa sobre los mismos en las notas de la memoria.

Las provisiones se valoran por el valor actual de la mejor estimación posible del importe necesario para cancelar o transferir la obligación, teniendo en cuenta la información disponible sobre el suceso y sus consecuencias, y registrándose los ajustes que surjan por la actualización de dichas provisiones como un gasto financiero conforme se va devengando.



Obligazioa kitatzeko unean hirugarren batek jaso beharreko konpentsazioa, aipatutako diru-itzultzea jaso dela ziur dakigunean, aktibo gisa erregistratzen da, arriskuaren zati bat kanporatu duen lege-loturarik ez dagonean, kasu horretan Entea erantzuteko betekizuna ez duelako. Egoera horretan, konpentsazioa kontuan izango dagokion hornidura jasotzeko zenbatekoa kalkulatzeko.

Ondare-erreklamazioekin lotuta, Enteak aseguru-polizak kontratatuta dauzka (12. Oharra).

Hornidurak pentsioetarako eta antzeko obligazioetarako

Enteak ez du erretiroko pentsio-plan bat bere enplegatuentzat; beraz, horri lotutako obligazioak Estatuko Gizarte Segurantzak estaltzen ditu.

Hala ere, Entea subrogatu zen langileen talde batzuekin (aktiboa eta/edo pasiboa) dituen konpromisoetan, eragiketen hasieran atxiki zirelako.

1536/1987 Errege Dekretuari jarraiki INSALUDetik transferitutako estatutupeko langile ez-fakultatiboen pentsio-osagarriak. Osagarri horiek sari finkoen % 100eraino iristen dira 25 urteko zerbitzualdia ziurtatuta duten pertsonen kasuan, pentsio publikoetarako baimendutako gehieneko mugarekin.

Patronatu Antituberkulosotik datorren langileria dagozkion pentsio osoak.

Basurtuko Ospitaleko langile jakin batzuen pentsio-osagarriak (1994ko abenduaren 31 baino lehenago erretiratu ziren).

Gainera, abenduaren 18ko 235/2007 Dekretuaren 20. artikulua (ekainaren 3ko 106/2008 Dekretuaren bidez onartu zen Osasuneko Mahai Sektorialaren Akordioaren Eranskin gisa sartu zen), 2014ko abenduaren 31n indarrean zegoenak, Osakidetza-EOZren langileria lan-baldintzak arautzen dituen Akordioa onartzen duenak, norbere borondatezko erretiro aurreratua har daitekeela ezartzen du, baita erretiro-adinaren araberako konpentsazio-pizgarri batzuk ere. 2012ko ekitaldian, Euskal Autonomia Erkidegoko urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen 6/2011 Legearekin etenda geratu ziren borondatezko erretiroagatik pizgarriak. 2016rako onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek erretiro aurreratuaren pizgarriak etenda mantendu dituzte. Urteko kontu hauek egin diren une honetan, ez daude onartuta 2017ko ekitaldirako EAEko aurrekontuak, baina Administrazioaileek ez dute uste aurreko ekitaldiarekin alderatuta aldaketarik izango denik.

La compensación a recibir de un tercero en el momento de liquidar la obligación, siempre que no existan dudas de que dicho reembolso será percibido, se registra como activo, excepto en el caso de que exista un vínculo legal por el que se haya exteriorizado parte del riesgo, y en virtud del cual el Ente no esté obligada a responder; en esta situación, la compensación se tendrá en cuenta para estimar el importe por el que, en su caso, figurará la correspondiente provisión.

En relación con las reclamaciones patrimoniales, el Ente tiene contratadas pólizas de seguros (Nota 12).

Provisiones para pensiones y obligaciones similares

El Ente no tiene un plan de pensiones de jubilación para sus empleados, estando las obligaciones al respecto cubiertas por la Seguridad Social del Estado.

No obstante, el Ente se subrogó en los compromisos existentes con determinados colectivos del personal (activo y/o pasivo), como consecuencia de su adscripción al inicio de sus operaciones:

Complementos de pensiones de personal estatutario no facultativo transferido del INSALUD en virtud de Real Decreto 1536/1987. Estos complementos alcanzan hasta el 100% de las retribuciones fijas en el momento de la jubilación para las personas que tengan acreditados 25 años de servicio, con el límite de los importes máximos de pensión pública autorizados.

Pensiones integras que corresponden al personal proveniente del Patronato Antituberculoso.

Complementos de pensiones de determinado personal del Hospital de Basurto, cuya jubilación fue anterior al 31 de diciembre de 1994.

Adicionalmente, el artículo 20 del Decreto 235/2007, de 18 de diciembre (al que se incorpora como Anexo el Acuerdo de la Mesa Sectorial de Salud aprobado por Decreto 106/2008, de 3 de junio), vigente al 31 de diciembre de 2014, por el que se aprueba el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal de Osakidetza-SVS, establece la posibilidad de acogerse a la jubilación voluntaria anticipada y establece una serie de incentivos compensatorios dependiendo de la edad de jubilación. En el ejercicio 2012, los incentivos asociados a la jubilación anticipada quedaron suspendidos con la entrada de la Ley de 6/2011 de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi aprobados para 2016 han mantenido suspendidos los incentivos de jubilación anticipada. A la fecha de las presentes cuentas anuales no han sido aprobados los presupuestos de la CAE para el ejercicio 2017, si bien los Administradores no consideran que vayan a producirse cambios respecto al ejercicio anterior.



